


poetas españoles
en
vascuence



ESPAÑOLK
LEPKARIAK
EYKERAZ

Etxebarria'tar Juan Anjel

ESPAÑI'ko OLERKARIAK
EUSKERAZ



S. Anton'go Katekesia
Euskal - argitalpenak

Depósito legal: BI 120 - 1969

Gráficas Bilbao — Gordóniz, 28 — Bilbao

ESKEINTZA:

**A todos los vascos que sufren, con un recuerdo
y un esfuerzo, les dedico este primer libro mío
del nuevo año.**

**Oñaze-miñetan dagozan euzkotarrai, gomuta ta
laguntza eskeñiz, aurtengo nire lenengo idazia.**

1969, Urte Barri eguna.

Euskeratzaillak

«Forsan et haec olim meminisse iuvabit»

(Vergilius)

23

ANTXIÑAKO ERRI KANTAK

CAMINO DE VUELTA A NAZARET

Romance popular

Camina la Virgen pura,
camina para Belén,
con su niñito en los brazos,
que más bello que el sol es,

—No pidas agua, mi vida;
no pidas agua, mi bien,
que van los ríos muy turbios
y no se puede beber.

Un poquito más adelante
hay un verde naranjel,
cargadito de naranjas
que más no puede tener.
Un ciego le está cuidando,
ciego que no puede ver.

—Ciego, mi buen ciegucecito,
si una naranja me dier
para la sed de este niño
un poquito entretener.

—Coja usted, buena Señora;
coja usted, buena mujer,
y en cogiendo para el niño
coja, también para usted.

NAZARET'A ETORRERA

Ba-doa Birjin garbia,
ba-doa Belen-aldera,
bere aurra besoetan.
Euzkia ez ain ederra.

—Ez eskatu urik, laztana;
ez eskatu urik, maite.

Ibaiak oso loi doaz
ta edateak dau kalte.

Aurreratxuago ba-da
urresagasti berdea,
geiago ezin-alean
urresagarrez betea.

Itsu bat bertan zaindari,
ikusieziñez dago.

Biotzeko itsu nirea,
urresagar bat emongo?

Aur oneri egarria
arean kentzeko, egi.

—Artu begi, andra ona,
emakume, artu begi.

Umearentzat artu ta
berorrentzat, bide batez.

La Virgen, como era virgen,
no cogía más que tres;
el Niño, como era niño,
todas las quiere coger;
cuantas el Niño cogía
volvían a florecer.

—Toma, ciego, este pañuelo,
limpia los ojos con él.
Apenas marchó la Virgen
el ciego comenzó a ver.

—¿Quién sería esa Señora,
quién sería esa mujer,
quién sería esa Señora
que me ha hecho tanto bien?
¿Si será la Virgen pura
y el Niñito de Belén,
si será la Virgen bella
y el glorioso San José?

Ama Birjiñak artu bai,
zenbat?, eta iru baiño ez.
Umeak, ume izan, ta
danak artu nai zituan.
Baiña umeak artu-ala
orra barrero loretan.
—Itsu, artuizu zapi au
ta igurtzi begiak, arren.
Birjiña joan zaneke
itsua asi zan ikusten.
—Andra ori nor ete zan,
nor ete emakume ori!
Andra ori nor ete dot,
olako on eiteko niri?
Birjin garbia bai ete,
ta Belen'go aur txikia?
Birjin ederra ete, ta
Deun Joseba aintzagarria?

Marqués de Santillana

(1398-1458)

OCTAVA

De Vitoria me partía
un día desta semana,
por me pasar a Alegría.
do vi moça lepuzana.

Entre Gaona e Salvatierra,
en esse valle arbolado
donde s'aparta la sierra,
la vi guardando ganado,
tal como el albor del día,
en un hargante de grana,
cual tod'ome la querría,
non vos digo por hermana.

Yo loé las de Moncayo
e sus gestos e colores,
de lo cual no me retrayo,
e la moçuela de Bores;
pero tal filosofía
en toda la su montana
cierto non se fallaría,
nin fue tan hermosa Illana.

MENDITAR-LELOAK

Zortzigarrena

Gazteiz'etik aldentzeko
nengoan, ba-zan astegun,
Alegirako asmotan.
Ta an neska giputza ikus nun.

Salbatierra —Gaona—
artean, mendi-lerroa ain
ur daukan aran zugazdun
ortan ikus nun abeltzain.
Goizalde-inguru; liñuzko
soin-gaiñekoz jantzirik zan.
Arrebatzat-ta... edozein
gizonak opa lukean.

Monkayotarrak goraipe — Lenengo leloan.
nitun, itxura ta margo.
Bores'ko neska, orobat. — Bederatzigarren leloan
Ortaz ez naiz damutuko.
Baiña alako itxura, bere
mendidi guztian zaila
litzake aurkitutzea.
Illana be ez, ain sotilla.

De la moça de Bedmar,
a fablarvos çiertamente.
Raçon ove de loar
su grand e buen continente;
mas tampoco negaría,
la verdad, que tan loçana,
aprés la señora mía,
non vi doña nin serrana.

Bedmar'ko neskata, berriz, — Laugarren leloan.
ontaz ba-nauzute egiti,
arrazoiez goratu nun,
tayu eder eta guzti.
Alan be, egitan, nerea
ezik, ez dut ikusi nik
a baizen ederra dan ez
andra, ez mendi-neskarik.

Gómez Manrique

(1412-1490?)

LA REPRESENTACION DEL NACIMIENTO
DE NUESTRO SEÑOR

(Fragmento)

Callad vos, Señor,
nuestro redentor,
que vuestro dolor
durará poquito.

Angeles del cielo,
venid, dad consuelo
a este mozuelo
Jesús tan bonito.

Este fue reparo
aunque él costó caro,
de aquel pueblo amargo
cautivo en Egipto.

Este santo dino,
niño tan benino,
por redimir vino
el linaje aflito.

Cantemos gozosas,
hermanas graciosas,
del Jesús bendito.

GURE JAUNAREN JAIOTZA

(Atala)

Ixillik, Jauna,
gure Eroslea,
zure samiñak
labur epea.

Goiko gotzonak
etor, pozgarri
izan Josu Aur
eder oneri.

Ejipto'n morroi
zan erriaren
oztopo Bera,
asko kosta arren.

Deun guren au, ain
ume errukior,
gizon mindua
gaizkatzen etor.

Josu maitea
dala-ta, abes
daigun arrebak
pozaren pozez.

Gil Vicente

(1465-1536?)

AUTO PASTORIL CASTELLANO

Aquí está fuerte majada.
Quiero repastar aquí
mi ganado; veislo allí,
soncas, 'n aquella abrigada.

Yo aquí estoy abrigado
del tempero de Fortuna.
Añublada está la luna,
¡mal pecado!
Lloverá, soncas, priado.

Quiero aquí poner mi hato
que cumple estar añazeando
y andarme aquí holgando,
canticando rato a rato.

¡Huzia en Dios! ¡Vendrá el verano
con sus flores y rosetas!
Cantaré mil chançonetas,
muy ufano,
si allá llego bivo y sano.

Or bazka-leku ederra.
Abere-taldea emen
bazkatu bear dot.
Babespe artan ikusten!

Zori-arotik gordea
nagokizu. Illargia
illun. Auxe txarra!
Ziur, ba-dakar euria.

Jar daidan ementxe nire
taldea. Jolasa atsegin
da. Nabillan lasai,
abestuaz noizean bein.

Jainko ona! Uda etorko
bere lore-bitxiakaz.
Bai pozez kantari,
bizirik aratzen ba'naz.

¡Riedro, riedro! ¡Vaya el ceño!
Aborrrir quiero el pesar.
Començaré de cantar
mientras me debroca el sueño.

.....
Asmo, asmo que te enludas.
Solo quiero canticar,
repastando mis cabritas
por estas sierras benditas.

No me acuerdo del lugar,
quando cara el cielo oteo
y veo tan buena cosa;
ño me parece hermosa,
ñi de asseo,
zagala de quantas veo.

.....
Aunque huyo la compañía,
ño quiero mal a pastor;
mas yo aprisco mejor
apartado en la montaña.

De contino siempre oteo,
ingrillando los oídos
si darán, soncas, gemidos
de desseo
los corderos que careo.

Geldi! Zelako betillun!
Naigabea urrundu bear
dot. Kantuz naiteke,
gelditu artean lokar.

Niretzako loitzen zabiltz.
Abestu ta abestu baiño
nai ez, auntz-taldea
lur maite ontan dodaño.

Ez naz oroitzen lekuaz
zerurantza so ba'nago,
orrenbesteko gauz
ederra ikus orduko.

Ikusten dodazanetan
artzain-neska batek bere
ez nau asetuten
egoki eta ederrez.

Laguntasunari igesi
arren, artzaiñei ez dautset
txarto nai. Mendian
bakar, ardiekin laket.

Tai gabe nago ikuska,
belarri-zorrotz, arkume
ok nun asiko ote
diran irrikaz be ta be.

'N el hato de Bras Picado
andava Marta bailando;
yo estúvela oteando.

Boca abierto, tresportado
y al son batiendo el pie,
estuve dos horas valientes
el ganado entanamientes
ja la hé!
no sé para dónde fue.

Y aun por esso que yo sospecho
me aparto de saltijones;
que vanas conversaciones
no traen ningún provecho.

Siempre pienso en cosas buenas,
yo me hablo, yo me digo,
tengo paz siempre comigo
sin las penas
que dan las cosas ajenas.
.....

No me quiero estar trastrás;
ya perdido es lo perdido.

Bras Pikado'ren taldean
Marta ebillen dantzari.
Abo-zabalik ta
pozez nengon barrandari.

Aren soñura dantzaka
ordu bian gogo andiz.
Abereak, ala
zerua! noranai, barriz.

Susmo dodanaxegaitik
antxintxika nabil urrin.
Alperreko berbak
mesederik ekar ezin.

Beti gauz onak gogoan,
nabil neure buruagaz
jardun-bearrean.
Beti neugaz paketan naz.

Iñoren gauzak damoen
naigabe barik. Ez dot nai
alan-olan egon.
Galdua galdutzat ta jai.

Fray Luis de León

(1527-1591)

AL APARTAMIENTO

Descanso después de la tempestad

¡Oh ya seguro puerto,
De mi tan luengo error! ¡Oh deseado
Para reparo cierto
Del grave mal pasado,
Reposo dulce, alegre, reposado!

Techo pajizo, adonde
Jamás hizo morada el enemigo
Cuidado, ni se esconde
Envidia en rostro amigo,
Ni voz perjura ni mortal testigo;

Sierra que vas al cielo,
Altísima, y que gozas del sosiego
Que no conoce el suelo,
Adonde el vulgo ciego
Ama el morir ardiendo en vivo fuego:

BAKARTADEARI

Ekaitz-ondoko ats-aldia

Nire luzezko okerraren kai
babesgarri! Lengo kalte
ilgarriaren osagarritzat
ziurtasunez atsarte
opaturiko,
gozo-eztizko,
pozez eta pakez bete!

Aterpe lastoz estalduriko;
Kezka arerioak iñoiz
ez bai dau bertan bizitokirik
egin, ezta ere Bekaitz
gordetzen lagun-
antzaz. Sasi-iztun,
ta ikusle ilkoi bez, estalgiz.

Zeru-aldera jagiten zaran
ta lur-gain ezezaguna
dan atsedena gozaten dozun
Mendi Goi; ozte-laguna
emen su biziz,
bere itsukeriz,
kizkali ilten da, poztuna.

Recíbeme en tu cumbre,
Recíbeme, que huyo perseguido
La errada muchedumbre,
El trabajar perdido,
La falsa paz, el mal no merecido.

Y do está más sereno
El aire me coloca, mientras curo
Los daños del veneno
Que bebí mal seguro,
Mientras el mancillado pecho apuro;

Mientras que poco a poco
Borro de la memoria cuanto impreso
Dejó allí el vivir loco
Por todo su proceso
Vario, entre gozo vano y caso avieso.

En ti, casi desnudo
De este corporal velo, y de la asida

Artu nagizu zure erpiñera.
Atotsi naizu, igesi
bai nabilkizu ozte galdutik,
Gal-zoriango lanari,
pake itxurazko,
merezi bako
gatxari nabiltzu itzuri.

Aizea nare-nare nun dago?
Antxe jarri nagizula,
koloka-aldian edoski neutsun
eden-ondoren zitala
osatu daidan,
zikin daukadan
bularra garbitu-ala.

Geldi-geldika oroimenetik
kendu daidan biziera
zoro ark, gora-bera ainitzekin,
eragin eustan zirrara.
Atsegin izun
eta jazokun
biurriz erain, gaiñera.

Zuregan, gorputz-estalgarria
arras erantzirik, oiko
jardukeraren lokarria autsi

Costumbre roto el nudo,
Traspasaré la vida
En gozo, en paz, en luz no corrompida.

De ti, en el mar sujeto,
Con lástima los ojos inclinando,
Contemplaré el aprieto
Del miserable bando
Que las saladas ondas va cortando.

El uno, que surgía
Alegre ya en el puerto, salteado
De bravo soplo, guía,
En alta mar lanzado,
apenas el navío desarmado;

El otro en la encubierta
Peña rompe la nave, que al momento
El hondo pide abierta;
El otro calma el viento;
Otro en las bajas sirtes hace asiento.

ta biziera igaroko
dautsut pozetan,
bake-argitan.
Bein be ez baita ustelduko.

Errukiz bete, begiak makur,
zuretatik ikusiren,
itsas lotuan, kresalan zear
ur-bidea ebagiten
dijoan lagun-
jarraigo ertun
ori zein larri dabillan.

Bata, portura sartzeko zala,
pozarren, aizetzak gogor-
gogor jo ta ur anditan sartu
aize-zirimolaz, or-or
oi da ibilli
bere itsasontzi
desegiñean trabakor.

Arako arek azpiko atxaz
apurtuten dau ontzia,
arrakalatu ta ondora arin
dana. Aizea ezta
jarri nai dautsu arako arek.
Ta ondarretan,
urmeunetan,
ezarten doa urlia.

A otros roba el claro
Día y el corazón el aguacero;
Ofrecen al avaro
Neptuno su dinero;
Otro nadando huye el morir fiero.

Esfuerza, opone el pecho;
Mas, ¿cómo será parte un afligido
Que va, el leño deshecho,
De flaca tabla asido,
Contra un abismo inmenso embravecido?

¡Ay, otra vez y ciento
Otras, seguro puerto deseado!
No me falte tu asiento
Y falte cuanto amado,
Cuanto del ciego error es codiciado.

Batzuei euri-jasak kenduten
dautsez egunaren argi
ta biotzaren kemena. Neptun
zekenari euren txindi
emon. Il-bear
latzari azkar
itzuri bestea igesi.

Alegin gogor egin. Bularra
sendo jarri. Alabaiña,
ontzia apurtu ta ol ariñez
dijoan gizon erkiña,
nola izango
neurrigabeko
leize asarretua aiña?

Ene, milla ta milla aldiz opa
izan zaitudan kai-babes!
Ez bekit peitu zure aterpe.
Okerkeri itsuak amets
eta egarriz
nai daunaz, barriz,
egon naitela ni gabez.

DE LA VIDA DEL CIELO

Alma región luciente,
Prado de bienandanza, que ni al hielo
Ni con el rayo ardiente
Falleces, fértil suelo,
Productidor eterno de consuelo;

De púrpura y de nieve,
Florida la cabeza, coronado,
A dulces pastos mueve
Sin honda ni cayado
El buen Pastor en ti su hato amado.

El va, y en pos, dichosas,
Le siguen sus ovejas do las pace
Con inmortales rosas,
Con flor que siempre nace,
Y cuanto más se goza más renace.

ZERUKO BIZITZA

Goi-alde argi bizi-emoille,
zoruntasunezko larra.
Izotz gogorra, izpi beroak
arren, etzara aldakorra,
Lur aberatsa,
pozezko atsa
betidanik emonkorra.

Burua gorri-min ta edurrez
loretu-koroaturik,
Artzain Onak ba-daroa, zugan,
bere artaldea pozik,
eme-emeki,
bazkatu-toki
gozora, abail-makil barik.

Ba-dabil Bera; bere atzean
pozarren ardiak jarrai;
il-eziñezko arkakaratsez
bazkatzen bai ditu nunai,
goza-alean
erne oi diran
lore berriak larre-gai.

Ya dentro a la montaña
Del alto bien las guía; ya en la vena
Del gozo fiel las baña,
Y les da mesa llena,
Pastor y pasto él solo y suerte buena.

Y de su esfera cuando
La cumbre toca altísimo subido
El sol, él, sesteando,
De su hato ceñido,
Con dulce son deleita el santo oído.

Toca el rabel sonoro,
Y el inmortal dulzor al alma pasa,
Con que envilece el oro,
Y ardiendo se traspasa,
Y lanza en aquel bien libre de tasa.

¡Oh son! ¡Oh voz! ¡Siquiera
Pequeña parte alguna descendiese
En mi sentido, y fuera.

Gutzizko onaren mendi-barrura
eramaten ditu gero;
pozor utsezko latsean busti
egiten ditu, oparo
jarriaz maia,
bazka ta Artzaia
bera dala, zorikiro.

Ta eguzkia, ginga-erdian
jasorik, bere ibillera
goituenean dagoalarik,
abaroan oi da Bera,
ardiak urbil,
egiñaz gil-gil
soñu gozoz belarrira.

Txistu zolia ba-daki jotzen;
gozotasun il-eziña,
urre-ezeggarri, gogoratzen dau
ta arima su egiña
Ontasun ari,
uko kezkarri,
oldartzen zaio ariña.

Zelako abots ta eresiak!
Oien izpi bat ba'letor
nire zentzumen onetara ta

De sí el alma pusiese,
Y toda en ti, oh amor, la convirtiese!

Conocería dónde
Sesteas, dulce Esposo, y desatada
De esta prisión adonde
Padece, a tu manada
Viviera junta, sin vagar errada.

gogoa jarririk sorgor,
zana ta dana,
Maitetasuna,
biurtuko ba'leu Zukor!

Jakingo leuke, Senar maitea,
abaroa nun daukazun.
Oñazeturik dagon espetxe
onetatik jarei, iñun
bere ez orron,
zure taldeon
beti leukake elkartasun.

Francisco de Quevedo

(1580-1645)

DEFINIENDO EL AMOR

Es hielo abrasador, es fuego helado,
es herida, que duele y no se siente,
es un soñado bien, un mal presente,
es un breve descanso muy cansado.

Es un descuido, que nos da cuidado,
un cobarde, con nombre de valiente,
un andar solitario entre la gente,
un amar solamente ser amado.

Es una libertad encarcelada,
que dura hasta el postrero parasismo;
enfermedad, que crece si es curada.

Este es el niño Amor, éste es su abismo.
¡Mirad cuál amistad tendrán con nada,
el que en todo es contrario de sí mismo!

MAITASUNA ZER DAN

Izotz kizkaltzaille ta su-izotza,
zauri bat miñezko, senti-eziña.
Ametsezko on, orain aldiko miña,
atseden laburra, oso nekeza.

Ardura dakarren ardura-eza,
ausardi izeneko koldar erkiña.
Gizartean bakar ibilli-miña,
maitatua izan, bakar, amesa.

Azkenengo zoro-aldiraiñoko
azkatasuna da, lokarrietan;
gexo bat, sendatuz gero azteko.

Orra Maite-aurra bere leizean.
Zer aizkidetasun iñogaz euko,
bere aurkakoa ba'da danetan!

EPITAFIO A UN AVARO

En aqueste enterramiento
humilde, pobre y mezquino,
yace envuelto en oro fino
un hombre rico y avariento.

Murió con cien mil dolores
sin poderlo remediar.
Tan sólo por no gastar,
ni aun gasta malos humores.

ZEKEN BATEN ILLARTITZA

Illobi apal, ziztrin-ezerez
ontan, gizon aberatsa
ta zekena zan bat urregorri
artean bildurik datza.

Amaigabeko miñekin il zan,
osakai arki eziñik.
Gastatzerako bildurrez, ez dau
izaten umore txarrik.

Félix de Samaniego

(1745-1801)



FABULA XIII

Las liebres y las ranas

Asustadas las liebres de un estruendo,
Echaron a correr todas, diciendo:
«A quien la vida cuesta tanto susto,
La muerte causará menos disgusto.»
Llegan a una laguna, de esta suerte,
A dar en lo profundo con la muerte.
Al ver a tanta rana que, asustada,
A las aguas se arroja a su llegada,
«Hola, dijo una liebre, ¿con que hay otras
Tan tímidas, que aun tiemblan de nosotras?
Pues suframos con ellas el destino.»
Conocieron sin más desatino.

**Así la suerte adversa es tolerable,
Comparada con otra miserable.**

XIII-GARREN ALEGIA

(Laugarren idaztia)

Erbiak, larri eztanda andiaz,
iges joiazan danak esanaz:

«Bizitzaldian ainbeste ikara,
iltea izango, aurki, gogara.»

Osin batera eldu, onetan,
eriotza prest an sakonean.

Eurak eltzean uretara izuz
jauzi dagie igelak erruz.

Eta erbi bat onelan mintzo:
«Ara besteok; ta nork esango.

Gugaitik bere ikaturik,
Ba-dago, beraz, uzkurragorik!

Patu berbera jasan bearko.»
Orixe asmau azken orduko.

Zoritxarra be biguna izan,
beste errukarri baten aldean.

Tomás de Iriarte

(1750-1791)

EL BUEY Y LA CIGARRA

Arando estaba el buey, y a poco trecho
La cigarra, cantando, le decía:
«¡Ay!, ¡ay! ¡Qué surco tan torcido has hecho!»
Pero él la respondió: «Señora mía,
Si no estuviera lo demás derecho,
Usted no conociera lo torcido.
Calle, pues, la haragana reparona;
Que a mi amo sirvo bien, y él me perdona
Entre tantos aciertos un descuido.»

¡Miren quién hizo a quién cargo tan fútil!
¡Una cigarra al animal más útil!
Mas ¿si me habrá entendido
El que a tachar se atreve
En obras grandes un defecto leve?

IDIA TA TXITXARRA

Idi bat egoan goldaketan eta
urretik txitxarrak inotson abestiz:
«Ene, zelako ildo okerra dagizun!»
«Ene ugazaba»; berak esan, aldiz,

«Gaiñerakoa artez ez ba'lego, zer dan
okerra berorrek ez leuke jakingo.
Alper andi ori ta maxiolari
uts eta zeatza, ba, ixillik bego.

Nire ugazaba ondo otseintzen dot.
Ba-daki ark niri uts bat parkatuten,
ainbeste ekintza treberen artean.»
Nor nori ain akats txikia ataraten!

Txitxarra abere onurakorrari!
Ekintza andietan akats bat ziztriña
billatzen asteko arpegia daunak,
baiña, aitu ete dau, gero, onen mamiña?

Duque de Rivas

(1791-1865)

LETRILLA

Decidme, zagales,
¿qué fuerza tendrán
los ojos de Lesbia,
que así me hacen mal?

Desde que los vide
ni sé descansar;
perdí mi reposo,
no puedo parar.

Sin duda que fuego
oculto tendrán,
pues, cuando me miran,
me siento abrasar.

Mas no da este fuego
incomodidad,
sino solamente...
no lo sé explicar.

Decidme, zagales,
¿qué fuerza tendrán
los ojos de Lesbia,
que así me hacen mal?

LELOA

Esaidazue, artzaiñak,
zelako indarra ete
dabe Lesbi'ren begiak,
niri egiteko kalte?

Ez dakit atsedeen artzen
ikusi nebazanetik;
artea galdu ta ezin
egon neinteke geldirik.

Ezkutuzko sua dabe,
antza, so dagistenean
illinti goriak senti
oi ditut nire barruan.

Su orrek, baiña, berekin
ez dausku gaitzik ekarten,
bakar-bakarrik, soil-soillik...
zera, ez dakit azaltzen.

Esaidazue, artzaiñak,
zelako indarra ete
dabe Lesbi'ren begiak,
niri egiteko kalte?

Eugenio Hartzenbusch

(1806-1880)

LAS ESPIGAS

La espiga rica en fruto
se inclina a tierra;
la que no tiene grano
se empina tiesa.
Es en su porte
modesto el hombre sabio,
y altivo el zote.

GALBURUAK

Galburu betea
lurrera makur.
Utsa, barriz, goruntz.
Jakituna zur
dabilke. Kirtena,
aldiz, ez uzkur.

Antonio de Trueba

(1819-1889)

El sol escondió su disco
entre nubes purpurinas
tras las montañas que el valle
por Occidente limitan,
y poco a poco el murmullo,
y el movimiento y la vida
se debilitan y mueren
en derredor de la ermita.

Mas la vida que allí falta
va por valles y colinas,
por llosas y castañares
y por estradas sombrías
con doble vigor se extiende
en direcciones distintas.
Oíd, oíd los cantares
y los gritos de alegría
con que atruenan los romeros
las selvas circunvecinas.

Por la estrada de Mendieta
torna a su casa una niña,
y como es medrosa, lleva
un galán por compañía.

Odei gorrizken artean,
Sarkaldetik arana bil
daben mendi-atzetik,
sartu da euzki biribil.

Geldika-geldika igi,
bizitasun ta susmurru,
aulduten ta ilten doaz
baselizaren inguru.

An bizirik ez ta aran,
mendi, solo, gaztañadi,
bide illunetan, biziro
zabalduten da noranai.

Entzun, entzun abesti ta
poz-irrintziak. Erromes-
aldrak ondoko basoak
dardar baten jarri dabez.

Mendieta'ko biðean
etxera doa neska bat.
Bildurti samarra da-ta,
mutil bat dauka laguntzat.

Hermosa ha sido la fiesta,
pero tú no sabes, niña,
que el néctar tiene sus heces
y las rosas sus espinas.
Acaso llores otro año
cuando el tamboril aprisa
«tan-taran-tan-tan resuene,
resuene en la romería».

Ederra izan da jaia.
Baiña, zuk jakin ez, neska,
likurtak mingostasuna
ta arrosak arantza dauka.

Datorren urtean negar
dagikezu, aurki, arin
jotzen dabela tuntuna,
tan-taran-tan, erromerin.

Wenceslao Querol

(1836-1889)

Nuestras ideas y pasiones copia
la mujer en su alma;
mas la rudeza varonil endulza
y suaviza al copiarlas.

Así la luna en los dormidos cielos
brilla con luz prestada;
pero el fuego del sol que la ilumina,
trueca en rayos de plata.

Emakumeak bere gogoan
gure gogai ta griñak didatziz.
Alabaiña, giz-gogorkeriak
idaztean, leun-bigunak dagiz.

Olantxe dager iretargia
lokartutako zeruan, iñon
argiz. Ta argitzen dauan eguzki-
su-garra, zidar-izpitan emon.

En las grietas de la vieja torre
polvo al pasar el huracán dejó;
trajo el ave en su pico la semilla;
cayó la lluvia y, cuando vino el sol,
entre las piedras de la torre antigua
brotó una flor.

Tú has sido para mí, niña inocente,
el viento, el ave que pasó veloz,
la gota de agua, el sol de primavera
cuya fecunda y misteriosa acción
entre las ruinas de mi ser engendra
nuevo el amor.

Torre zarraren zirrituetan
aizetzak autsa itxi eban
igarotean; txoriak azi-
alea bere mokoan
ekarri; asi ziran euritzak
ta, eguzkia agertzean,
lore bat erne yatzun torretzar
aren arrien artean.

Niretzako zu, ume errugabe,
izan zara aizea, bizkor
igarotako txoria, ur-tanta,
ta, bere lan eraginkor-
ezkutuagaz nire izate-
ondakiñen artean, sor-
barri bai'litzan, Maitea sortzen
dauan eguzki maitekor.

Rosalía Castro

(1837-1885)

Detente un punto, pensamiento inquieto;
La victoria te espera,
El amor y la gloria te sonrén.
¿Nada de esto te halaga ni encadena?
—Dejadme solo y olvidado y libre.
Quiero errante vagar en las tinieblas;
Mi ilusión más querida
Sólo allí dulce y sin rubor me besa.

SAR'EKO IBARRETAN

62

—Gel apur baten, gogai artega,
garaipena zain dozu, barrezka
maitasun-aintza. Ezek ez zaitu
lotutzen edo emoten kezka?

—Utz nagizue bakar, aztuta
ta azke; illunetan ibilli nai dot;
nire lillura kutunenak an
soil, leun-lotsage, emoten daust pot.

José Zorrilla

(1855-1931)

EPITAFIO

En el sepulcro de un niño

Nada queda de mí sobre la tierra:
el leve polvo que mi tumba encierra
convertirá el abril en frescas flores
y el cielo dio a mi alma eterno asilo.
Cristiano corazón, pasa tranquilo
junto a mi tumba: pasa, y no me llores.

ILLARTITZA

Ume baten illobian

Lur-gain nirerik ezer ez dago.
Aprillak lore bigun egingo
nire obiak gorde daun autsa.
Nire gogoak goian egoitza.
Biotz kristaua, aurrera, nasai;
joan aurrera, eutsi malkoai.

Salvador Rueda

(1857-1933)

EL COHETE

Lanzóse audaz a la extensión sombría,
y era al hender el céfiro sonante,
un surtidor de fuego palpitante
que en las ondas del aire se envolvía.

Viva su luz como la luz del día,
resplandeció en los cielos fulgurante
cuando la luna en el azul radiante
como rosa de nieve se entreabría.

Perdióse luego su esplendor rojizo;
siguió fugaz cual raudo meteoro,
y al fin surgió como candente rizo.

Paró de pronto su silbar sonoro;
y tronando potente, se deshizo
en un raudal de lágrimas de oro.

SU-ZIRIA

Zabaldi illunera azarri oldar.
Aize leuna otsez ebakitzean,
su-bizizko iturri-jauzi antzean,
bil eguratsaren uiñetan zear.

Egunarena lez zun argi-adar.
Bizi dizdiratu yatzun ortzean,
Illargia argizko urdin-unean
edurrezko lore lez zabaltzear.

Gero galdu aren diz-diz gorrizka:
izarki arin lez joan igeskor:
azkenez, su-kizkur legez, goraka.

Tanpez, aren txistu zoliak amor:
ta gogorki joaz asi, zatika,
urrezko malkotan, edatsu-jauskor.

Antonio Machado

(1875-1939)

LIX

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que una fontana fluía
dentro de mi corazón.

Di, ¿por qué acequia escondida,
agua, vienes hasta mí,
manantial de nueva vida
de donde nunca bebí?

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que una colmena tenía
dentro de mi corazón;
y las doradas abejas
iban fabricando en él,
con las amarguras viejas,
blanca cera y dulce miel.

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que un ardiente sol lucía
dentro de mi corazón.

BART AMETSETAN

Bart, ametsetan, lo nengoala
iturri baten jario leuna
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna!

Iñoiz txastatu bako iturbegi,
bizi-indarraren suspertzaille, esan:
nungo erreten ezkuuak jauz-
arazi dizu nere barnean?

Bart, ametsetan, lo nengoala
erlauntza baten burrunba leuna
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna?

Urregorritzko erleak ezti
gozoa eta ezko zuria
aritzen ziran bertan mamitzen,
oñaze zarrak arturik gaia.

Bart, ametsetan, lo nengoala
eguzki-gingan argi biguna
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna!

Era ardiente porque daba
calores de rojo hogar,
y era sol porque alumbraba
y porque hacía llorar.

Anoche cuando dormía
soñé, ¡bendita ilusión!
que era Dios lo que tenía
dentro de mi corazón.

Gartsua zan, bai, sutondo gori
antzean, bero ematen bai zun.
Eguzkia be ba-zan, argitu
eta negarra eraiten zizun.

Bart, ametsetan, lo nengoala
Jainkoa bera zala nuena
senti nun ene biotz-barruan.
Zorioneko ameskizuna!

LXVIII

Llamó a mi corazón, un claro día,
con un perfume de jazmín, el viento.

—A cambio de este aroma,
todo el aroma de tus rosas quiero.

—No tengo rosas; flores
en mi jardín no hay ya; todas han muerto.

Me llevaré los llantos de las fuentes,
las hojas amarillas y los mustios pétalos.
Y el viento huyó... Mi corazón sangraba
Alma, ¿qué has hecho de tu pobre huerto?

EGUN ARGITSU BATEN
(Galerías, LXVIII)

Egun argitsu baten aizeak,
jazmin-usaiñez, biotz-atetan
dei: —Usain onen truk zure lorak
daben usaiña nai dot eroan.

—Larrosarik ez nere baratzak.
Onezkero il dira guztiak.
Orduan berak: —Orri zimelak
daroakedaz ta ur-negarrak...

Aizeak iges... Nere biotza
odol-jario... Zori gaiztoa!
—Nun ete dago zure baratza?
Zure baratza, ene gogoal!

LXXIX

Desnuda está la tierra,
y el alma aúlla al horizonte pálido
como loba famélica. ¿Qué buscas,
poeta, en el ocaso?

Amargo caminar, porque el camino
pesa en el corazón. ¡El viento helado,
y la noche que llega, y la amargura
de la distancia!... En el camino blanco

algunos yertos árboles negrean;
en los montes lejanos
hay oro y sangre... El sol murió... ¿Qué buscas
poeta, en el ocaso?

LURRA BILLOSİK DA AGERI...
(Galerias LXXIX)

Lurra billosik da ageri.
Ene gogoá osertz-lits
zurbillari buruz zaunka
otso gosetia bai'litz.

Arrats-apalean zeren
billa zabiltz, olerkari?
Au bidearen mingotsa,
biotzaren nekegarri!

Aize otz, datorren gaba,
urrutitasun mingotsa...
Bide zurian arbola
batzuen irudi baltza.

Urrutiko mendietan
urre-odola. Il barri
da eguzkia. Arrats-beran
zer billatzen, olerkari?

LXXX

(CAMPO)

La tarde está muriendo
como un hogar humilde que se apaga.

Allá, sobre los montes,
quedan algunas brasas.

Y ese árbol roto en el camino blanco
hace llorar de lástima.

¡Dos ramas en el tronco herido, y una
hoja marchita y negra en cada rama!

¿Lloras? ...Entre los álamos de oro,
lejos, la sombra del amor te aguarda.

ZELAIA
(Galerias, LXXX)

Arratsaldea il-urren dago
sutondoko gar ezereza antzo.

Mendi-gaiñetan txingar eskasak.
Bide zuriko zugatz jausiak,

errukiarren, negar-malkoak
ixuriaz daustaz. Enborrak,

zauriz, adar bi. Eta adarretan
orri baltz bana, erio-ikaran.

Negar? Urrezko lertxun-artean
Maite-ltzala zai dozu, urrunean.

Eduardo Marquina

(1879-1946)

LA VIRGEN MARIA

La Virgen María
penaba y sufría...
Jesús no quería
dejarse acostar...
¿No quieres?
No quiero.
Cantaba un jilguero,
sabía a romero
y a luna el cantar.
La Virgen María
probó si podría
del son que venía
la gracia copiar.
María cantaba,
Jesús la escuchaba,
José que aserraba
dejó de aserrar...
La Virgen María
cantaba y reía,
Jesús se dormía
de oirla cantar.

AMA BIRJIÑA

Ama Birjiña
oiñaze-miñez.
Josu'k lotara
joan gura ez.

Ez nai? Ez. Txindor
bat dari, illargi
ta erromeru
baizen gozoki.

Andra Mariak
ekin, etorren
soñu-ots ari
ederra artzen.

Mariak abes.
Josu zur-adi.
Joseba'k serra-
lanari itxi.

Ama Birjiña
irriz ta kantuz.
Josu entzunaz
joian lokartuz.

Tan bien se ha dormido
que el día ha venido,
inútil ha sido
gritarle y llamar...
Y... entrando ya el día
como El aún dormía,
para despertarle
¡la Virgen María
tuvo que llorar!

Ain lo dago ta,
goiza urratzear,
alperrik dira
dei ta deadar.

Eguna il, Bera
lo. Ta Andra Marik,
esnarazteko,
negar gogotik!

Juan Ramón Jiménez

(1881-1958)

PASTORALES

10

Los caminos de la tarde
se hacen uno, con la noche.
Por él he de ir a ti,
amor que tanto te escondes.

Por él he de ir a ti,
como la luz de los montes,
como la brisa del mar,
como el olor de las flores.

ARTZAIN-ABESTIAK

Ibarra 10

Arratsaldeko bideak
bat egiten dira, gabaz.
Maitasun ain ezkutuoi,
andik zeuganatuko naz.

Andik zeuganatuko naz,
mendien argi-moduan,
itsas-aizea bezela,
lore-usaiñaren antzean.

PASTORALES

8

(...Anda el agua de alborada...)

Romance popular

Doraba la luna el río
—¡fresco de la madrugada!—
Por el mar venían olas
teñidas de luz de alba.

El campo débil y triste
se iba alumbrando. Quedaba
el canto roto de un grillo,
la queja oscura de un agua.

Huía el viento a su gruta,
el horror a su cabaña;
en el verde de los pinos,
se iban abriendo las alas.

Las estrellas se morían,
se rosaba la montaña;
allá en el pozo del huerto,
la golondrina cantaba.

ARTZAIN-ABESTIAK

Ibarra-8

(...Ibilli dabil ura argi-urratzean...)

Erri-kanta

Iretargiak latsa urreztatzen
—Egunsentiko ozkirri!—
Itsasotik ba-etozan uñak
goizaldeko argiz gorri.

Zelaia makal, itun, argitzen
joian. Kilker baten jardun
autsia lotzen zan. Ba-zan ere
ur baten intziri illun.

Aizeak bere zulora iges,
bere bordara izuak;
piñu-berdean asiak ziran
zabal egiten egoak.

Izarrak ilten ziran, mendiak
larrosa-margoa artuten;
An, baratzeko oxin-ondoan,
enara bat abestuten.

(Cita)

El viento rinde las ramas
con los pájaros dormidos.
—Abre tres veces el faro
su ojo verde—. Calla el grillo.

¡Qué lejos, el huracán,
pone, uno de otro, los sitios!
¡Qué difícil es lo fácil!
¡Qué cerrados los caminos!

Parece que se ha trocado
todo. Pero al claror íntimo,
se ven arenas y flores
donde ayer tarde las vimos.

(Urrutiko Baratzak-Baratz gizatsuak)

Txoriak lo, adarrak jo
aizeak. Begi muskerra
irutan diriki Itsas-
argiak. Ixil kilkerra.

Zirimolak bai urrunzen
bata bestetik lekuak!
Erreza zein gatx eiten dan!
Zein goibel ibilbideak!

Dana aldatua dirudi.
Barne-argitan, ostera,
atzoko lekuan ondar-
lorak begiztatzen dira.

13

He venido por la senda,
con un ramito de rosas
del campo.

Tras la montaña,
nacía la luna roja;
la suave brisa del río
daba fresca a la sombra;
un sapo triste cantaba
en su flauta melodiosa;
sobre la colina había
una estrella melancólica...

He venido por la senda,
con un ramito de rosas.

ABESTI ITUNAK
(Gomutapen Sentikorrak)

13

Zidorretik etorri naz,
basa-larrosen mordoska
eskutan. Mendi-ostean
sortzen illargi gorrizka;

Erreka-aize bigunak
eze egian itzala;
sapo itun batek jotzen zun
ederki bere txirula.

Izar bat uzkurtasunez
egoan muño-gaiñean.
Zidorretik etorri naz,
lili-txorta eskuetan.

15

(Recuerdos sentimentales)

Aquel ramito de flores
que me mandaste del campo
—¡ay, azahar, ay, jazmín!—,
aún lo llevo aquí clavado.

¡No sé qué tiene, que no
se marchita! Su olor blanco,
como una pregunta virgen,
sigue esperando, esperando...

ABESTI ITUNAK
(Gomutapen sentikorrak)

15

Zelaitik bialdu zeustan
lore-mordoska txikia
—oi, limoi-lore, oi, jazmin!—,
ementxe daukat josia.

Ez dakit zer dun. Igartu
ez! Bere usain zurizka,
itaun neskuts baten antzo,
oraindik ere itxonka...

OLVIDANZAS
(Las hojas verdes)

I
Crepúsculo

El poniente me invade con sus flores
de oro, mientras, largo y lento, canta
el ruiseñor de todos mis amores,
ahogándose casi en mi garganta.

Al ver este oro entre el pinar sombrío,
me he acordado de mí tan dulcemente,
que era más dulce el pensamiento mío
que toda la dulzura del poniente.

¡Oh dulzura de oro! ¡Campo verde,
corazón con esquilas, humo en calma!
No hay en la vida nada que recuerde
estos dulces ocasos de mi alma.

AZTUTZEAK
(Orri orlegiak)

I
Illunabarra

Sartaldeak urre-loreekin napurtzen
nau; luze ta astitsu nire maitetasun
danen urtxindorra, tartean, abesten,
eztarrian ito-zorian egotzun.

Urre au piñudi baltzean ikus ta
nire burua ala izan dot gogoan,
eztitsuago zan nire gogoeta
Sartaldeko ezti guztian aldean.

Oi urrezko ezti! Zelai orlegia,
ezkildun biotza, patxadazko eke!
Nire arimako iltzeon eztia
birtaldian ezek ezin oroi leike.

MI CUNA

¡Qué pequeñita es la cuna,
qué chiquita la canción;
mas cabe la vida en ésta
y en aquélla el corazón!

¡Nadie ríe aquí de ver
a este niño grandullón
mecerse, quieto, en su vieja
cuna, a la antigua canción!

—¡Qué pequeñita es mi vida,
qué tierno mi corazón!
¡Este me cabe en la cuna,
y la vida en la canción!—

¡Cómo se casan los ritmos
de cuna y de corazón!
¡Los dos vuelan por la gloria,
en una sola pasión!

¡Qué pequeñita es la cuna,
qué chiquita la canción;
mas cabe la vida en ésta
y en aquélla el corazón!

NIRE SEASKA

Zein dan txikia seaska,
zein dan laburra abestia;
alan be, baten biotza,
bestean sartzen bizia!

Emen iñork barrerik ez
sein kotor au ikustean
kuma zarrean kulunka
kanta zarraren otsean!

—Nire bizia bai txiki
ta bigun nire biotza!
Berau kuman kabitzen yat,
eta abestian bizitza!—

Biotz-seaskan igiak
zelan diran alkartuten!
Biak aintzaren atzetik
zalentasun bakar baten!

Zein dan txikia seaska,
zein dan laburra abestia;
alan be, baten biotza,
bestean sartzen bizia!

OLVIDANZAS
(Rosas de setiembre)

4
Cuarto

¡Qué quietas están las cosas,
y qué bien se está con ellas!
Por todas partes, sus manos
con nuestras manos se encuentran.

¡Cuántas discretas caricias,
qué respeto por la idea;
cómo miran, estasiadas,
el ensueño que uno sueña!

¡Cómo les gusta lo que a uno
le gusta; cómo se esperan,
y, a nuestra vuelta, qué dulces
nos sonríen, entreabiertas!

¡Cosas —amigas, hermanas;
mujeres—, verdad contenta,
que nos devolvéis celosas,
las más fugaces estrellas!

AZTUTZEAK
(Irailako larrosak)

4
Gela

Zein geldi dagozan gauzak,
zein ondo nagon eurekin!
Euren eskuak, goi-betik,
aurkitzen gure eskuekin.

Zenbat ixillezko ikutu,
bulkoai buruz zein lotsa;
zelan so egiten daben
bat bederaren ametsa!

Zein maite daben norberan
grifia; zelan ditxaroen,
ta, gu itzultzean, zein gozo,
zabalik, barre eiten daben.

Gauzak —lagunak, arrebak;
andreak—, poz-gertaera,
izar ariñenak, espaz,
damoskuzuez atzera!

REY DE VANIDADES

Coronaba la tarde mi tristeza
con sus multiplicados resplandores,
y eran oro magnífico estas flores
mustias, adorno vil de mi cabeza.

Desde la cumbre de mi realeza,
sonreí, campeador, a mis dolores;
cual miel, paladeé mis sinsabores;
pensé que el pesar era la belleza.

Mujer al fin, la tarde, vanamente
se desnudaba de su luz, las cosas
quedábanse sin ansia y sin sentido...

Volví a ser yo. Las flores de mi frente
volaron cual doradas mariposas,
y me quedé hecho el rey del olvido.

USKERIEN ERREGE

Arrats-berak bere izpi ugariz
nire illuntasuna jantzi koroez,
ta nire buruko apainki deusez
diran lore zimel ok urre biziz.

Nire erregetzaren gaiñetik, irriz
nire naigabeai, garaille legez.
Eztiz lez gozartu nire samiñez;
samiña ederra, nire iritziz.

Arratsak alperrik, andrazko da-ta,
beraren argia eban erantzi,
gauzak irrika ta sena galdurik.

Ni nintzan barriro be. Mitxeleta
urrezko lez, egaz nire bekoki-
lorak. Ta ni aantzi-errege egiñik.

VIGILIA

Todas las noches vienes a mi sueño,
para decirme, dulce y quedamente,
que mi empeño en echarte de mi frente,
como a una maldición, es vano empeño.

Las torres que conquisto en el risueño
día para el olvido, en la doliente
noche las voy perdiendo, nuevamente...
¡Despierto esclavo si me dormí dueño!

Velo al sol, y a la luna, desvelado,
guardo ansioso a que la sombra caiga
y asuste tu visión la amanecida.

El dormir, ¡ay de mí!, se me ha olvidado:
de día, porque el sueño no te traiga,
por la noche, esperando tu partida.

GAU-BELA

Gabero oi zatoz nire lotara,
gozo ta geldiro niri esaten
alperreko lana dodala añen
bat lez bekokitik zu urrun-bearra.

Aztutzeko egun alaiz eskura
dodazan torreak berriz galduten
noa gau samíñez. Jopu itxartuten
naz nagusi lez ba'nintzan lotara.

Eguzki-illargitan nagotzu erne,
artega ditxarot itzal noiz jausi,
zure ikustea izu dadin goizaldez.

Lo egitea aztu egin yat, ene!,
Egunez loak ez zaizan ekarri,
noiz alde egingo ote daustazun, gabez.

Gerardo Diego

(1896)

TENTACION

No. De noche no. De noche
no, porque me miran ellas.
Sería un mudo reproche
el rubor de las estrellas,

Tan inocentes, tan puras,
con sus ojos ignorantes,
latiendo como diamantes
allá arriba en las alturas.

—Entonces, mira. Mañana
bajo el sol viejo y ardiente.
La luz ciega, muerde, aplana.
El alma duerme... y consiente.

—De día? No. Las estrellas
en el cielo están también.
¿No lo sabías? Sí. Ellas,
aunque invisibles, nos ven.

ZILTZALDIA

Ez, gabean ez. Iñolaz ere,
eurak bai ditut begira.
Berba gabeko iroi litzake
goiko izarren bekara.

Ain errubako, ain garbi dira,
euren begi jakingekin,
ikatzarri lez intzirika ari
dira orko goietatik.

—Orduan, biar. Eguzki zar ta
berotsuaren azpian.
Itsutu, usiki, zapaltzen argik.
Gogoak, lo, laket ortan.

—Egunez? Ez, ez. Izarrak bere
zeruan egoten dira.
Ez al zenkian? Ikus-eziñak
ortxe daukaguz begira.

Federico García Lorca

(1898-1936)

MEDIA LUNA

La luna va por el agua.
¡Cómo está tranquilo el cielo!
Va segando lentamente
el temblor viejo del río
mientras que una rama joven
la toma por espejito.

ILLARGI ERDIA

Illargia uretan dabil.
Zerua dagon ziurra!
Astiro ebaten doa
errekaren dar-dar zarra.
Bitartean adar gazte
batek artan antzikurra.

Dámaso Alonso

(1898)

LA FUENTE

Agua de roca en valle,
hay una voz que canta.
Lebreles de ventisca
tal vez a oirla paran.

Tal vez la orilla trémula
de la canción rozando,
flamígeros la abrasan
o nos la niegan ávidos.

Mas tú, canción, no cesas.
Muertos y en sed, igual
has de fluir, oh fuente,
belleza perennal.

ITURRIA

Ibarreango aitz-ura,
abots bat dago kantari.
Bisuts-txakurren taldea
gelditu bide ba, adi.

Abesti-ertz dardartia
ikutuz edo, kizkaltzen
dabe garrez, edo, gosez,
guri dauskue ukatzen.

Baiña, Zeu, abesti, lotu
ez. Gu ilda edo egarriz,
aurrera, iturri, zoazke,
betirako edergarriz.

CAMINANDO DE NOCHE

Son árboles sedientos,
cabelleras en súplica,
que van la loma arriba,
tras la belleza última,

y el huracán repela
por la ladera abajo
hasta las quiebras hondas
—oh vida— del barranco.

Son árboles que buscan,
en soledad y viento,
lo que tú buscas. ¡Huye,
oh caminante negro!

GABAZ BIDE

Or, zugatz egarrituak,
ule-mototsak otoitzez,
mendian gora azkenengo
ederra atzeman bearrez.

Aize latzak maldan bera,
—oi bizitza— gogor joaz,
arruko troken sakona
garbitu eiten dau arras.

Bakartade ta aizetan,
zugatzak ekin dabilta
zuk billa dozunan billa.
Alde, egin bidazti baltza!

Rafael Alberti

(1902)

Retorcedme sobre el mar,
al sol, como si mi cuerpo
fuera el jirón de una vela.

Exprimid toda mi sangre.
Tended a secar mi vida
sobre las jarcias del muelle.

Seco, arrojadme a las aguas
con una piedra en el cuello
para que nunca más flote.

Le di mi sangre a los mares.
¡Barcos, navegad por ella!
Debajo estoy yo, tranquilo.

Biurritu nagizue
itsas-ganean, euzkitan,
nire soifia aize-oial
baten dindirri bai'litzan.

Atara eizue nire
odol guztia. Zintzillik
jar nire bizi legorten,
nasako tantai gaiñetik.

Bota nagizue, igar,
uretan, lepoan arri
bat, emendik aurrera bein
be ibil ez nadin igeri.

Itsasoai emon neutsen
odola. Ontziak, jarrai
bertatik ibilteari!
Azpian neu natza, lasai.

Ojos tristes, por la banda
de babor... ¿Adónde irán?

—¿Adónde van,
capitán?

Ojos tristes, que verán
las costas que otros no vean...

—Sin rumbo van.

...Mis ojos tristes, sin rumbo...

Ontzian ezker-aldetik begi
itunak... Nora joango ete?
—Norantza ete, ontziburua?
Begi itunok ba-dakuskete
bestek eztako itsaso-ertza.
—Joan doatzuz, aurrez ibilte
jakiñik euki barik. Begi itun
nireok bere, nora ez dute.

ROA DE DUERO

Otra vez el río, amante,
y otra puente sobre el río.
Y otra puente con dos ojos
tan grandes como los míos.
Tan grandes como los míos,
mi amante.
¡Mis ojos, cuando te miro!

ROA DE DUERO

Ostera bere ibaia,
maitati, ta beste zubi
bat ibai-ganean. Beste
zubi batek begi andi
bi, nireak aiñakoak.
Nire begiok irudi
andiz, laztana. Begiok,
begiratutzean zeuri!

Miguel Hernández

(1910-1942)

El Silencio estaba
entre dos campanas.
...Y lo hizo hablar
la misa del alba.
¿Quién le respondió?
¡Sólo la sotana
del cura llevándose
lo nocturno a rastras
detrás del manteo!
¡Qué sola avanzaba
al templo final
la calle, la plaza,
la soledad, todo,
y la acompañaba
un bulto dorado
de sombra y de nada!
Vibraba el silencio,
y se reiteraba

BURDIN ORIZKO IXILLUNEA

Ixiltasuna kokatu
kanpai biren artean.
Goizaldeko meza ixillak
berba eragin eutsan.

Nork erantzun? Apaizaren
soiñekoak, gautarra
danari jantzi-atzetik
eragiola narra.

Gueneko elizarantz
bakar joian kalea,
enparantza, dana, baita
ere bakartadea!

Itzal-utsaren urrezko
mukulu, aren lagun.
Ixilla dar-dar; berritzen
zan bere mututasun.

su mudez. El pueblo
seguía en la cama
con sus apetitos
llenos de palabras:
¡qué bien al deseo
la respuesta daba!
Pero ¿a Dios? Silencio
entre dos campanas.

Ta erria bitartean
oe-barruan etzin
berbaz asebieteriko
bere naikeriekin.

Bere irritsai erantzun
zeatz emoten eutsan.
Ta Jaungoikoari? Ixilla
kanpai biren artean.

Tus ojos se me van
de mis ojos y vuelven
después de recorrer
un páramo de ausentes.

Tu boca se me marcha
de mi boca y regresa
con varios besos muertos
que aún baten, que aún quisieran.

Tus brazos se desploman
en mis brazos y ascienden
retrocediendo ante esa
desolación que sientes.

Otero de tu cuerpo,
aún mi calor lo vence.

Zure begiak nireotatik
doakidaz eta atzera
etortzen dira, urrutikoen
lurrari egiñaz bira.

Zure aboa niretik doa
ta atzera dator, ildako
mosu batzukaz, oraindik egaz
ta irrikaz, dagoneko.

Zure besoak nireetan lur jo,
goraka doaz, nabari
dozun ondapen orren aurrean
dijoaztela igesi.

Oraindik, zure gorputz-mendixka,
nire beroak azpian dauka.

Dime desde allí abajo
la palabra **te quiero**.
¿Hablas bajo la tierra?

Hablo con el silencio.
¿Quieres bajo la tierra?

Bajo la tierra quiero
porque hacia donde corras
quiere correr mi cuerpo.

Ardo desde allí abajo
y alumbro tus recuerdos.

Esan eidazu or betik maite
zaut itza. Berbaz zagoz lurpean?
Ixiltasunaz nabil izketan.
Maite al dozu, lurpean ere?

Zu zeu zoazan lekurantza nai
du nire gorputz onek. Argatik
maite lurpean. Su naiz or betik,
zure gomuten argitzeko gai.

Escribí en el arenal
los tres nombres de la vida:
vida, muerte, amor.

Una ráfaga de mar,
tantas claras veces ida,
vino y los borró.

Bizitzako iru izenak izkiz
irar nebazan ondartzan:
bizi, erio, maitetasuna.

Ainbat argizko alditan
joandako itsas-ukaldia ager
ta ezabatu zituan.

Troncos de soledad,
barrancos de tristeza
donde rompo a llorar.

Bakartasun-enborrak,
ituntasun-arruak,
berton nire malkoak.

SER ONDA, OFICIO, NIÑA, ES DE TU PELO

Ser onda, oficio, niña, es de tu pelo,
nacida ya para el marero oficio;
ser graciosa y morena tu ejercicio
y tu virtud más ejemplar ser cielo.

¡Niña!, cuando tu pelo va de vuelo,
dando del viento claro un negro indicio,
enmienda de marfil y de artificio
ser de tu capilar borrasca anhelo.

No tienes más que hacer que ser hermosa,
ni tengo más festejo que mirarte,
alrededor girando de tu esfera.

Satélite de ti, no haga otra cosa,
si no es una labor de recordarte.
—¡Date presa de amor, mi carcelera!

OLATU IZAN, ZURE ULEEN ARAZO

Olatu izan, zure uleen arazo,
itsas-lanerako jaioko neska.
Zure ekintza, izan bitxi-baltziska.
Zeru izan, zure on gorenengo.

Neska, zure ulea egaz orduko,
aize argitsua baltz-erakuska,
zure adatsaren ekatxan aurka
gura oi dot, boli landu-antzeko.

Ederra izan, beste zeregiñik ez
zuk. Ta nik, zuri so, ez beste jairik,
zure ertz biribillan igurumari.

Zeure izar-lagun, ez begit ezerez,
zerori gogora ekarri baizik.
—Ene zaitzaille, etor Maiteak atzi.

Te me mueres de casta y de sencilla:
estoy convicto, amor, estoy confeso
de que, raptor intrépido de un beso,
yo te libé la flor de la mejilla.

Yo te libé la flor de la mejilla,
y desde aquella gloria, aquel suceso,
tu mejilla, de escrúpulo y de peso,
se te cae deshojada y amarilla.

El fantasma del beso delincuente
el pómulo te tiene perseguido,
cada vez más patente, negro y grande.

Y sin dormir estás, celosamente,
vigilando mi boca ¡con qué cuidado!
para que no se vicie y se desmande.

Garbi-bakunarren ilten zayataz:
errudun naz, maite, ta auxe aitor:
mosu bat, ausarki, lapurtu nun or,
zure mosuaren guna edanaz.

Zure mosu orren guna iruntziaz
batera, ura bai gauza omenkor,
zure mosu ori, nimiño-gogor,
ba-doatzu ori ta zimelduaz.

Mosu gaizkiñaren iratxo ori
or doatzu, matrail orren jarraille,
agiri, andi ta baltzago eiten.

Lorik egin barik zagoz urduri,
bai setatsu, ene abo-zaitzaille,
ustel eta bidez oker ez daiten.

Por una senda van los hortelanos,
que es la sagrada hora del regreso,
con la sangre injuriada por el peso
de inivernos, primaveras y veranos.

Vienen de los esfuerzos sobrehumanos
y van a la canción, y van al beso,
y van dejando por el aire impreso
un olor de herramientas y de manos.

Por otra senda yo, por otra senda
que no conduce al beso aunque es la hora,
sino que merodea sin destino.

Bajo su frente trágica y tremenda,
un toro solo en la ribera llora
olvidando que es toro y masculino.

Lur-langilleak ba-doaz bidazti,
biurkera-ordu itzala da-ta,
ta euren odola zamaz beteta,
negu, udabarri ta udara-aldi.

Alez gaiñetiko alegiña utzi
ta abestira doaz, mosutara-ta.
Aidean itxiten dabe irarrita,
joan-ala, esku-tresnen usainki.

Bestelako bide ni nabillena.
Ordua dan arren, mosutara ez,
noraezean ta inguruz doa.

Bekoki itzal-zoritxardun zezena
ibarrean dago, bakar-negarrez,
azturik zezen ta ar dalakoa.

BILLABIDEA

Alberti, Rafael	145
Alonso, Dámaso	139
Castro, Rosalía de	79
Diego, Gerardo	131
García Lorca, Federico	135
Hartzenbusch, Eugenio	63
Hernández, Miguel	153
Iriarte, Tomás de	55
Jiménez, Juan Ramón	109
León, Fray Luis de	29
Machado, Antonio	91
Manrique Gómez	17
Marquina, Eduardo	103
Querol, Wenceslao	73
Quevedo, Francisco de	45
Rivas, Duque de	59
Romancero Popular Antiguo	6
Rueda, Salvador	87
Samaniego, Félix de	51
Santillana, Marqués de	11
Trueba, Antonio de	67
Vicente Gil	21
Zorrilla, José	83

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemone-tako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (Mendiburu'tar S.)
33. Gabon-Abestiak (Intxausti'tar A.-Gallastegi'tar K.)
34. Españi'ko Olerkariak euskeraz